

## Lasa eta Charo Galan garaile

Atzo ospatu zen Martin Egaña eta Santi Garcia VII. oroimenezkoa

Ostadarrek Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin, zazpi-garren urtez antolatu zuen atzo goizean Michelingo kirol guneko bola tokian Martin Egaña eta Santi Garcia Bolo oroimenezkoa.

Aurtengoan 24 bolo jaurtiztailek hartu dute parte. Beste urtetan bezala, etorritako partehartzaile guztiak ez ziren herrikoak, Ereñozu, Hernani, Urnieta... eta bestehainbat herri ezberdinetatik ere etorri ziren.

### Garaileak

Gizonezkoen artean protagonista Jose Antonio Lasa lasar-teoriatarra izan zen, bera izan baitzen birla gehien bota zituena, 48 hain zuzen ere. Beraz Lasa izan zen garaile eta lehenengo lasar-teoriatarraren oroigarria ere berarentzako izan zen.

Lasaren atzetik Jose Ugalde urnietarra, Miguel Burugain hernaniarra eta Jose Cruz Aranburu ereñotzuarra geratu ziren, hirurak ere 47 birlekin.

Herritarren sailkapenean berriz, Lasaren atzetik Jose Antonio Montes izan zen bigarren 39 birlekin eta Inaxio Otaegi hirugarren 38rekin.

Emakumezkoetan berriro ere Charo Galanek irabazi zuen 24 birlekin, bigarren Rosa Garcia izan zen 11rekin eta 10ekin Chichi.

### Sari banaketa

Sariak banatzen Egaña eta Garciaen senitartekoak aritu ziren. Alde batetik Martin Egañaren alarguna, M<sup>a</sup> Dolores Solano eta beraien alaba Ainhoa eta bilobak aritu ziren: Ibon Otxandorena, Nahia eta Ugaitz Igarritz. Bestalde, Santi Garciaen alarguna, Rakel Marin aritu zen. Sari banaketa amaitutakoan, antolatzaileek oroigarri bana eman zieten M<sup>a</sup> Dolores Solano eta Rakel Marini.

Giro ederrean aritu ziren jaurtitzan goiz osoan zehar eta bertaratutakoek goiz pasa ederra egin zuten. •



Jose Antonio Lasa izan zen irabazlea gizonezkoetan, guztira 48 birla bota zituen.



Amaitutakoan, antolatzaileek, irabazleek eta omenduen senitartekoek argazkia atera zuten.



Lasarte-Oriako Helduen Hezkuntza Iraunkorreko zentroak izen-ematea ireki du /4

### KIROLA /3

Ostadarrek futboleko porra jarri du martxan aurtengo ikasturterako



Amaraun ludotekak asteazkenean irekiko du izena emateko epea /5



## Bideo Lagunak

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK!

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134  
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

# Hasi da Judoko denboraldia

- Beste urtetan bezala 60 lagun inguru entrenatuko dira tatamian Gorka Aristegirekin
- Adin ezberdineko hamar bat judoka lasarteoriatar lehiatzen dira gero txapelketetan

Gorka Aristegik 26 urte daramatza judoko entrenatzaile eta urtero 60-70 lagun aritzen dira bere esanetara tatamian. Prestatzailearen filosofia argia da, "helburu nagusia pertsonak egitea da, euren nortasuna finkatzeko orduan judoa lagungarri izan dadila alegia". Sanbo eta borrokan Españako txapelkun izandako Amaia Curiel lasarteoriatarra Murtziara doa aurten Errendimendu Handiko Eskola batetara.

Jon ALTUNA

Oinetakoak erantzi, judoko arropak jantzi eta tatamian jarduten dute astean bi edo hiru aldiz. Judokak dira. Piskanaka, teknikak ikasi ahala kolore ezberdinetako gerrikoak lortzen dituzte. Beltza da preziatua, eta bost Dan lortu eta gero, sei garren Dan-arekin lortzen da goreneko gerrikoa, txuri gorria. Amaia Curiel-ek 16 urterekin eskuratu du gerriko beltza eta bigarren Dan-a lortzeko puntuak baditu, beraz hurrengo urtean jasoko du.

Herriko beste judokak ere ikasturte berria hasi zuten irailaren 6an; astelehen, asteazken eta ostiralero elkartzen dira judoan aritzeko. Gero maila ezberdinetako txapelketak hasten direnean prestaketa fisikoa aparte egiten dute astearte eta ostegunetan.

Gorka Aristegi entrenatzaileak adierazi digunez, zazpi urterekin hasten dira haurrak judoan, hauek astelehen eta ostiraletan, 18:30tik 19:30etara aritzen dira, eta besteak, 11 urtetik gorakoak, handiekin batera, hiru egunetan. "Urtero

egoten dira baja eta altak, baina, 60-70 inguru dira urtero" kontatu digu pozik Gorka Aristegik. Zazpi urte ditu aurten ere gazteenak eta Gorkak esan digunez, nagusiagoak izan badituzte ere zaharrenak berrogei inguru. Denak ez dira txapelketetan aritzen. "Horiek kadete mailatik gorakoak dira, 15-16 urtetik gora, senior pare bat, beste junior pare bat eta neska pare bat oso onak. Kadeteak ere ondo dabilta eta beraz, dozena bat edo maila onean ari dira. Pozik gaude".

Guztien artean bat nabarmentzekotan, Beñat Elizalde aipatzen du Aristegik: "Gure kapitaina da, asko laguntzen dit. Gazteagoek errespetu edo begirunea diote. Betidanik ari da hemen eta denoi laguntzen digu. Seniorra, 23 urte ditu, ondoen dabilena da. Bere anaia Iñaki ere oso ondo dabil txapelketa handietan. Amaia eta Leire Zubizarreta neskak ere bai".

Dena den, Gorka Aristegik emaitzei baino bere ikasleen garapenari begiratzen die. Zera adierazi digu: "Nire helburu nagusia, poetikoa badirudi ere, pertsonak egitea da, eurak



Judoan aritzen diren lasarteoriatarretako batzuek Polikiroldegiko tatamian. Gorka Aristegi zutik da eskuman.

persona onak izatea, hori hartzen dut helburu bezala, hau beraiantzat zerbait lagungarria izatea, beren nortasuna finkatzean lagungarri izan dadila. Hau lehenengo. Eta gero emaitza aldetik, batzuen helburua Españako txapelketara iristea da eta horretarako Gipuzkoa, Euskadi eta Sektoretik pasa behar dira. Ez da batere erraza, baina, Beñat han egon behar litzateke, bere anaia Iñaki 23 urtetik beherakoetan, Amaia eta Leire neskak, Esteban Martínez juniorretan eta lau kadete ere bai. Infantelekin lasaiago ari gara, hor daude, konpetitzen dute, baina helbu-

ria kadetetatik aurrera fuertea-go edo serioago lehiatzea da. 16 urtera arte ez dira gimnasioan aritzen, ez dute pisu eta horrelakorik ukitzen. Uztaiekin aritzen dira".

## Judoa, borroka eta sanboa

Judoaz aparte borroka olinpikoa eta sanboa ere egiten dituzte: "Guretzako bigarren mailakoak dira, judokak gara baina aukera hori hor dago. Hemen, Euskadi mailan oso gutxi egiten dute eta guri bidaiatzeko aukera ematen digu. Entrenamendu gisara".

Emaitza hobekak lortu dituzte diziplina hauetan, borrokan

eta sanboan. Maila ona dute lasarte-oriatarrek, prestatuta daude eta dominak lortu dituzte, urrezkoak ere bai.

Gorka Aristegi 14 urterekin hasi zen judoan eta segituan klaseak ematen. "Aurten 26. denboraldia izango da. 15 urterekin laguntzaile hasi eta berehala Michelineko klaseak hartu nituen, beste irakasleak beste lan bat zeukalako. Berandu hasi nintzen, baina hori bakarrik egiten nuenez, egunero institututik entrenatzaera joan, bostetan bazkaldu eta berriro lanera, urte beteetan lortu nuen gerriko beltza. Eta hortik aurrera irakasle!". •

## Amaia Curiel

Judoka

### "Murtzian gogorrago entrenatuko dut"

Amaia Curiel judoka ostiraletan joan zen Murtziara Errendimendu Handiko Zentro batetara urte baterako. Han egingo ditu DBH ikasketak Borroka Olinpikoarekin batera. Gorka Aristegi bere entrenatzaileak azaldu digunez, euren asmoa lehenengo eta behin bizi-esperientzia bat eskaintzea da: "behar du gurasoengandik aparte heldutasun maila lortzeko".

**Ze adin daukazu eta zenbat urte daramatzazu judoan?**

16 urte ditut, 17 egingo ditut azaroan. Judoan laugarren

mailan hasi nintzen. Orain dela zazpi bat urte, 9 urterekin. Nire anaia gazteagoa ari zen judoan eta etxean ikasitakoak esplikatzeko zituen, hau eta beste,... Nik dantzan ez nuen ezer hain konplikatu ikasten, beraz, hasi egin nintzen eta hemen jarraitzen dut.

**Gustura ari zara?**

Bai, oso gustura.

**Urrezko zenbat domina dituzu etxean?**

Judokoa bat ere ez. Sanbon lehenengoa lortu dut eta borrokan hiru. Judoan Españako

hirugarrena gelditu nintzen urte batean, beste batean zazpigarren. Sanboan ere bigarren postua lortu nuen.

**Emaitza onena judokoa dela esango zenuke?**

Bai, baina borroka modalitatean hasi ginen probatzeko eta jada Españako txapelketa izateko, uf, ezustekoa izan zen...

**Nola sortu zen Murtziako kirol zentrorako joateko aukera?**

Txapelketa batean beste kide batek esan zidan bera bazihoala, eta haren entrenatzaileak komentatu zidan ea nik joan



nahi nuen, aukera ona zela eta azkenean animatu naiz.

**Kirola eta ikasketak uztartuko dituzu beraz?**

Bai, borroka olinpikoa egingo dugu han eta ikasketak ere bai.

Ahal dudanean tartetxo bat hartuko dut Lasartera etortzeko, lagunak ikustera.

**Judorako ondo etorriko al da?**

Bai, han teknika ere lantzen delako eta teknika judoan asko laguntzen du.

**Zenbat denborarako zoaz?**

Oraingo urte baterako. Gero suertea baldin badut eta borrokan emaitza onak lortzen baditut, beka onartuko didate eta jarraitzeko aukera izango dut.

**Ilusio eta gogoz al zoaz?**

Bai.

**Astean hiru aldiz entrenatzen duzu, han gogorrago izango da?**

Bai, esan didate oso fuertea entrenatzen dela, baita gimnasioan arlo fisikoa ere. •

## Matrikula egiteko azken egunak

Lasarte-Oriako Udalak antolatzen dituen dantza ikastaroak adin ezberdinetarako prestaturik daude eta honen arabera helburu batzuk edo besteak izango dituzte.

Dantza pertsonak beren barnekotasuna adierazteko kanal bat da, eta haurrei sentsibiltate hori garatzeko bidea ematen saiatuko dira. Horregatik, lau ordutegi ezberdinetan banatuko dituzte, batetik 5 eta 6 urtekoek astearte eta ostegunetan 17:45etik 18:45ak arte izango dute saioa; 7 eta 8 urtekoek berriz, egun bere-

tan baina 18:45etik 19:45era; 9-10 urteko taldeak astelehena, asteazkena eta ostirala, 18:00etatik 19:00ak arte eta 11-13 urteko gaztetxoek hiru egun horietan, 19:00etatik 20:00etara.

Helduen kasuan dantza garaikidea egingo da. Saioak goizez izango dira, astelehena, asteazkena eta ostirala goizeko 10:15etik 11:45era.

Matrikulatzeko epea, bai umeen bai helduen ikastarotan irailaren 30a arte izango da, Gazteen informazio bulegoan. •

## Betiko kokalekura itzuli da Ormazabal loradenda

Lau urte eta erdi beste lokalean egon ondoren, larunbatean inauguratu zuten lokal berria



Jende ugari bildu zen Ormazabal loradendaren inauguraziora.

Larunbat eguerdian Lizarriturrienean, edo askok ezagutuko duten moduan alpargateri zaharrenean Ormazabal loradendakok denda berria inauguratu zuten.

Lau urte eta erdi pasa dira etxea bota eta berria bukatu duten bitartean. Tarte horretan Zumaburun egon da denda, baina larunbatean bere betiko kokalekura itzuli zen. Ohiturak mantenduz, Ramon Uribetxeberria eta Luis Mari Murua apaizek, denda bedeinkatu egin

zuten, zori ona eta babes eskainiz. Senitarteko eta lagun ugari ere bildu ziren dendaren inauguraziora, udaleko hainbat agintari barne.

Gainera, dendaren kanpoaldean Amalur trikitixa eta pandeko eskolako kideak zeuden giroa alaitzen eta lortu zuten Ramon Ormazabal bera dantzan jartzea. Luntxa ere eskaini zuten eta hainbat lore banatu zituzten Ormazabal dendakok hurbildutakoek eskerrak emateko. •



## Kiroletako oharrak

### Herriko Areto futbol txapelketa

Ostadar K.F.-ko Areto-Futbole txapelketako arduradunek gogora arazten dute, asteazkenean, irailaren 22an, 19:00etan, lehiaketan parte hartuko duten taldeekin bilera dutela udal kiroldegian. Honetan, denboraldi honetako aldaketak jakin araziko dituzte.

### Ostadar Futbol eskola

Ostadarreko futbol-eskolan izena-eman dutenek elkarteko bulegotik, Geltoki kalea 25 zenbakitik hurbil daitezke Futbol Eskolako informazioa jasotzera.

Bulegoa arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara dago irekia.

### Buruntzaldea I.K.T.

Buruntzaldeko Igeriketa Kirol taldeko arduradunek jakin arazi digutenez, denboraldi hasieran zehar taldean sartzeko aukera badago oraindik, beraz inor interesaturik egonez gero, haiekin harremanetan jartzea besterik ez du.

Informazioa nahi duenak 696 506 673 telefono zenbakira deitu, Ruben, edo irailaren zehar 18:00etatik 19:30era kiroldegian Borjagatik galdegin dezala.

### Beltzak-Ostadar Errugby Eskola

Oporren ostean, Beltzak-Ostadar Errugby Eskola lanean hasi da, Michelingo Kirol Gunean. Entrenamenduak igandero dira 9:00etatik aurrera..

Eskolako arduradunek 2002ko abenduaren 31a baino lehen jaio-tako haurrei deialdia egiten diete entrenamendura hurbildu eta kirol hau ezagutzeko.

Eskolan izena emateko hiru aukera daude, bata Ostadarreko bulegoan, bestea 666 321 059 telefono zenbakian edo [beltzakrt.com](http://beltzakrt.com) web orrialdean.

### LOKEko tenis atala

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko tenis atala lanean hasi da 2010-2011 denboraldia prestatzeko.

Ordutegi eskaintza izako bera

da. Hala ere, haur eta gaztetxoak, Michelingo Kirol Gunera hurbil daitezke 18:30etik 20:30era entrenamendu ordutegiak jakin eta arduradunek taldeak osa ditzaten.

Era berean, kirol honetan lehenengo pausak eman nahi dituzten herritarren izena ematea irekia dago.

### LOKEko gimnastika atala

LOKEko gimnastika atala lanean dago, aurrebenjaminetako neskek izan ezik.

Entrenamenduetako ordutegia honako hau izango da, ostegun eta ostiraletan 19:00etatik 20:00etara; larunbatetan, benjaminak 12:00etatik 13:00etara eta beste mailak 12:00etatik 14:00etara.

Aurrebenjaminak urriaren 2an hasiko dira eta larunbatetan izango dute bere saioa, 11:00etatik 12:00etara.

Izena emateko entrenamendu orduetan kiroldegira gerturatu edo 676 872 029 telefono zenbakiar deitu behar du interesatuak.

## Ostadarrek Futboleko porra antolatu du

Txirindularitzako porrako dinamika jarraituz, Ostadar K.F.-k futboleko porra berria jarriko du martxan lehenengo mailako jokalariekin.

Ligako jokalariek taldeetan banatuko dira, hala nola, atezainak, atzelariak, zentralak edo aurrelariak eta boletoko bakoitzean 11 jokalariko taldea osatu behar da talde bakoitzetik jokalaria bat aukeratzeko.

Boletoko eta porrako oinarririk irailaren 22an, asteazkenean, banatuko dira ohiko tabernetan eta urriaren 2ko eguerdian arte bete eta utzi ahaliko dira tiketak.

Lehenengo futbol porra hau urriaren 2ko asteburuan hasiko da eta lehenengo itzuliko azken jardunaldian, hau da, urtarrilaren 16an amaituko da.

### Sariak

Jardunaldi bakoitzeko saria

egongo da, 60 euro eta Porrako lehenengo eta bigarren sailkatuek, 360 eta 180 euro-tako sariak izango dituzte.

Bigarren itzulian ere porra egingo denez, 2010-2011 denboraldiko bi porren irabazleak 1000 euro eskuratuko ditu.

Era berean, hiru urdaiazpiko zozketatuko dira porrako partehartzaileen artean eta azken sailkatuak ere urdaiazpikoa izango du.

Puntu gehien eskuratzen dituen tabernak ere saria izango du.

### Partehartzera gonbita

Ostadar K.F.k lasarteoriatar guztiak gonbidatzen ditu boletoko bete eta porran parte hartzera. Izan ere, "horrelako ekimenei esker, elkarteari laguntza ematen zaio Lasarte-Oriako kirol eskaintza hobetzeko," adierazi dute arduradunek. •

Lasarte-Oriako HHI Zuzendaritza taldea

# ‘Inoiz ez da berandu ikasten hasteko’

■ Adinaren kontuak ahaztu eta ikasteko aukera zoragarria eskaintzen du Lasarte-Oriako HHIk  
 ■ Zentro ofiziala da Lasarte-Oriakoa eta kurtso guztiak dohainik eskaintzen dituzte

Zaharregia naiz ikasten hasteko, hau da heldu askok zerbait berria ikasten hasteko jartzen duten aitzakia. Aurreiritzi eta juzko guztiak alboratu eta ikasten hasteko aukera paregabea eskaini nahi dute Lasarte-Oriako HHItik. DBHko eta Unibertsitaterako sarbidea lantzeaz gain, kurtso ugari eta anitzak eskaintzen dizkizute. Gainera ordutegi zabalak eta malguak dituzte. Aurten ez duzu aitzakiarik, pasa zaitez iraila bitartean Zumaburuko ikastetxetik, informatu eta ikasten has zaitez.

ITXASO MORENO

**Informatika, hizkuntzak, artearen historia... ikasteko aukera aunitz eta zabala eskuragarri dago Lasarte-Oriako HHIko zentroan. Hogei urte baino gehiago daramate herriko helduak hezitzen. Zumaburuko ikastetxeko erakinean egon dira orain arte, baina aurten erdigunera egin-goto dute aldaketa. Guzti hone-taz hitz egiteko bildu gara zuzendaritza taldearekin.**

## Zer ikasketa mota aurkitu ditzakegu zuenean?

Alde batetik gure zentroak hezkuntza arautua eta arautu gabea eskaintzen du. Arautuan DBHko titulua eskuratzeko aukera dago eta Unibertsitaterako sarrera froga prestatzeko laguntza eskaintzen da. Ez arautuan ikastaro ugari eta anitz ditugu.

## Zehatzago, zeintzuk dira ikastaro horiek?

Informatika, euskara, ingele-sa, frantsesa, gaztelania atzerriarrentzat, sukaldaritza, arte ikastaroa. Azken honetan, Iruñea, Gasteiz, Bilbo, Donostia-rea egiten ditugu txangoak. Tertulia literarioa, irakurtzen eta idazten ikasi, zine historioa eta Gure bazterrak.

## Zer lantzen da Gure Bazterrak ikastaroan?

Hemengo inguruko biotopo ezberdinak ezagutzeko aukera proposatzen dugu. Eta guzti hori natura aldetik, historikoki, sozialki... Kurtso honen mamiak txangoak dira. Lehenengo klasean bisitatuko dugun eremua lantzen dugu zerbait ezagutzeko, baina gero lekuan bertan sakontzen eta ikasten da.

## Zer leku bisitatu zenituzten?

Pasa den urtean adibidez, udazken sasoiaren Aralarren

mendi buelta eman genuen. Txingudiko paduretaren ibil-ginena, Zumaiko flishean, Anboton eta asteburuko txango batean Piriniotara egin genuen. Bertan Arbaungo arroila, San Juan de la Peña ezagutzeaz gain, erraketetaz baliatuz elurtuta zegoen paraje-jean ibili ginena.

## Zeintzuk dira ikastaro arrakastatsuenak?

Informatika, Gure Bazterrak, artearen historia... Jende asko ere DBHko titulua ateratzeko hurbiltzen da.

## Zer lantzen da informatikan?

Informatika ikastaroan mundu honen hasierak erakusten dira. Maila ezberdinak daude gustukua izan dutenek, hurrengo urtean jarraitu ahal izateko.

Hasieran, kurtsoarekin hasi ginenean irizpide batzuk jarraitu genituen. Orduan, lehenengo lauhilekoan sistema operatiboak lantzen genituen, gero word, gero excell... egun irizpideak erabat aldatu ditugu, ikasleen interesetara mugatuz. E-mailak bidaltzen erakusten diegu, interneten nabigatzen, blog-ak egiten, argazkiak antolatzen, power point-ak eginez...

## Ikastaroen ordutegia?

Goizez eta arratsaldez dira. 20:30erako amaitu behar dira klaseak. Ordutegiak ikasleen arabera antolatzen dira, beti ere gela eta irakasleen ahalmenaren arabera.

## Ze adin tartea da nagusi?

18 eta 80tik gorako ikasleak ditugu gure artean. DBHko titulua ateratzera etortzen den ikaslegoa nahiko gaztea da, baina informatikako ikastarotan helduagoak dira. Hala ere, getetan nahasturik daude.

Ikastaro hauek ere oso onak dira gaitasunak ez galtze-



Arg.: Alberto Alonso Ugartemendia

Piriniotako paisaietaz disfrutatze-ko aukera izan zuten Gure Bazterreko ikasleak. Erraketekin ibili ziren elurretan.



Arg.: Alberto Alonso Ugartemendia

“ Gure Bazterrak ikastaroan lekuan bertan lantzen dira ikasi beharreko guztiak

ko. Burua lantzen da, trebetasuna hartu eta osasuna landu ariketa fisikoaren bitartez. Gainera, besteekin erlaziozatzeko ere oso bide ona da.

## Aurtengo berrikuntza eraikin berria izango da.

Hori da. Baina momentuz ez

dakigu ziur noiz joango garen eraikin berrira. Udaletxetik urrian han egongo ginela esan ziguten, hala ere, oraindik ezin dugu datarik zehaztu. Lekua bai, erdigunera egingo dugu salto, ambulatorio berriko azken pisua guretzako izango da.

## Lotsatuta eta dudatan dagoen jendeari zer esango zenioke, nola animatuko zenuke?

Askotan esaten bada ere, inoiz ez da berandu ikasten hasteko. Beti aukera dugu zeozertan hasteko. Gainera, formakuntza akademikoaz gain, adiskidetasuna ere lantzen da hemen. Horretarako jai ezberdinak antolatzen ditugu; Santo Tomas, liburua-aren eguna, literatur lehiaketa, emakumearen eguna, bukaera ko jaia... ondo pasatzen da.

Ah! Gogoratu nahi dugun etorkinaren ere lekua dutela. Erderazko klaseak ematen ditugu. Baina beste kurtso guztiaren ere tokia dute.

## Sortzen diren harreman horien isla Lan eta Lan da.

Hori da. Lan eta Lan ikasle eta ikasle ohiek sortutako elkarte da. Gure ikastaroetik pasatu direnek sortutakoa. Antzerki talde oso ona daukate, eta honetaz gain beste ikastaro batzuk egiten dituzte. Gainera, eraikin berrira gozanean gurekin etorriko dira.

## Matrikulazio epea ireki da, noiz arte egongo da apuntatzeko aukera?

Iraila amaitu arte aukera egongo da, goizez eta arratsaldez.

Goizetan 9etatik 13ak arte, eta arratsaldetan 4etatik 7ak arte. Ostiraletan goizez bakarrik egongo gara.

Gogoratu DBH eta Unibertsitate sarbiderako matrikulazio epea irailaren 16an amaitu zela. •

# Ludotekan lagunartean jolasean

Hilaren 22an, asteazkenean, Amaraun Ludotekan matrikulatzeko epea irekiko da

Lasarte-Orian umeen aisia euskalduna bultzatzeko helburuarekin jaio zen Amaraun Ludoteka. Jolas egiteko gunea da, umeei dibertsioa eskainiz. Elkarbitza bultzatzeaz gain aisialdiko jolasaren bitartez haurraren garapena lantzea da helburua, beti ere, euskararen erabilera eta ezagutza bultzatuz. Jolasteaz gain, lagunekin biltzeko aukera eskaintzen du, lagunarteko jolasa sustatuz.



Umeak euren aisia antolatzea da helburua "momentuan ez badute egin nahi ez zaie behartzen"

## TXINTXARRI

Jolasa, haurren garapenerako ezinbesteko baliabide naturala da; eta jostailua aldiz, jolas egiteko tresna. Jolasaren bidez helduen mundura hurbiltzen dira, euren arteko elkar harremanak landuz, gaitasun fisiko nahiz psikikoak garatuz eta inguruaren ezagutzan sakonduz. Amaraun Ludoteka helburu horrekin jaio zen herrian eta horri jarraituz mantendu da. Aurten ere, atek irekitzeko ordua iritsi da. Ikasurte berriarekin, aurpegi berriak ezagutzeko gogoekin.

### Programazio berezia

Amaraun Ludotekan 2-8 urte bitarteko gaztetxoek dute parte hartzeko aukera. Bi programazio ezberdin prestatu dituzte arduradunek; alde batetik 2-4 urte bitartekoentzat eta beste bat, 5-8 urte dituztenentzat.

### Errepikapenez ikasiz

2 eta 4 urte bitarteko haurrek "gauzak errepikapenaren eta imitazioaren bitartez ikasi, baneratu eta osatzen dituzte" azaldu digute arduradunek. Helduak dira euren erreferente "eta oso markatua gainera", horregatik programa egiterakoan oso kontuan eduki dute.

Duela urte pare bat etxe erraldoi bat jarri zuten ludotekan; sukaldea, logela, liburutegia eta garajea bihurtzen

den ileapaindegi batekin; etxearen txoko ezberdinak "nolabait errealitate eta egunerokotasun horretan ematen diren momentuan errepikatze-ko aukera eskainiz".

Jolasetan oinarritzen da beraz txikientzako programazioa, baina eskulanak eta tailer ezberdinak, sukaldaritza adibidez ere bere lekua du.

### Jakin-min handia

5 eta 8 urte bitarteko haurrak "mugituagoak dira, jakin-min handiagoa dute eta horri erantzuna ematen saiatu behar gara programazioa lantzen dugunean". Eginkizun berrietan hasten dira, kirolean adibidez. Kirola neurritz praktikatzea gomendagarria da garapen fisiko eta mentalerako, diziplina eta talde lana eta esfortzuaren garrantzia bezalako balioak sustatzeko. Baina argi "gu ez gara kirol teknikariak, aisiarako begira-leak gara". Osagai lehiakorrek mugatu behar dira "haurrei kirola jarduera ludiko gisa erakutsiz" diote arduradunek. Kirolei beste dimentsio bat ematen diete, "futboleak, saskibaloian aritzen bagara, joko erraldoi batean bihurtzen dugu adibidez".

Garapen prozesuan aurrera eginez "dinamismoa multijolasaren bitartez eskaini eta esperientzia berriak bizitzeko aukera ematen diegu". Jolasa-

ren bitartez eskulan eta tailer ezberdinak ere eskaintzen dira; egurrezko tailerra, eskaioia, kamiseten diseinua... lantzen dira "material berria eta desberdina erabiliz". Gainera gaitasun desberdinak garatzeko "bertsoak, txalaparta, txotxongilo, landaretza tailerrak ere antolatzen ditugu".

Adin tarte hauetakoak tailer eta jolasetan oinarrituko dira beraz. Eta hiru hilero asteburu pasa bat izango dute "iaz probatu genuen lehenengo aldiz eta emaitza oso positiboa izan zen".

### Elkarrekin jolasean

Ludotekaren hastapenetan bi adin tarteak aldenduak ibiltzen ziren, baina orain dela 2-3 urte espazio berdinean jolasean aritzea pentsatu zuten. Esperientzia positiboa izan zen "konprobatu genuen espazioa konpartitu zezaketela, txikientzako handiak

erreferente bat dira". Askotan begiratu baino ez diete egiten "azken finean gure garaian plazan egiten genuena, handienekin jolastu edo euren jolasak errepikatu" diote arduradunek.

Garai batean, umeak parkean lagunartean "jorratzen genituen ekintzak Amaraun ludotekan egiten ditugu".

### Euskara oinarri

Ludotekaren helburua aisia euskalduna bultzatzea da "euskara helburu eta bitartekari izanik eta aisiako metodologia erabiliz" azaltzen digute. Metodologia honetan, haurrak, gazteak eta gurasoak hartzen dira kontuan, "baina adin-talde bakoitza modu autonomoan aztertu beharrean, guztiak batera landuz" gaineratu digute.

Urte ugari dira ludoteka martxan jarri zenetik "eta konturatu gara umengan eragina dugula".

### Gurasoen garrantzia

Amaraun ludotekan umeez gain, gurasoek ere garrantzia handia dute "gauza asko beraiekin lantzen dira, hizkuntza ohituretan eragiteko euren papera ezinbestekoa da". Horretarako, hainbat ekitaldi; txotxongilo saioak, antzerkiak... antolatzen ditugu. Artisautza eta euskal kultur tailerrak ere antolatzen ditugu ume eta gurasoak elkarrekin aisiak disfrutatu dezaten.

### Matrikulazioa

Hilaren 22an, asteazkenean hasiko da matrikulazio epea. Informazioa [www.ttakun.com](http://www.ttakun.com) web orrialdean, Ttakuneko bulegoan, Amaraun Ludotekan edota 943 371 448 telefono zenbakira deituta eskuratu daiteke. Gainera gogoratu, inskripzioa egin baino lehen "umeak inongo konpromisorik gabe ludoteka ezagutu, probatu dezaketela". •

## M. Berasategi

### Kafeak



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko



#### INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

#### TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

#### KAFE ARABIKOA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316 LASARTE-ORIA

ALBOKA ABESBATZA

## Ahots berrien bila

Alboka Abesbatzak entseguak hasi ditu. Abesbatzako helduen atalak, herritarrak animatu nahi ditu entsegura hurbildu eta probatzera.

Herriko taldea astelehen eta ostegunetan, 20:00etatik 21:30era, biltzen da Arantzazuko Ama Birginaren eliza azpiko lokalean.

Alboka Txikik, aldiz, ez ditu oraingoz entseguak hasi, entsegu eguna eta ordua zehazterakoan emango da honen berri. •



URTEURRENA

## Mendi Kafe Rocken ospakizunak

Mendi Kafe Rock-ek sei urte beteko ditu eta hori ospatzeko larunbatean, irailaren 25ean, ekintza ugari prestatu ditu herrian.

Baina ez da bakarria urtemuga duena, Mendi Kafe Rock-ekokin bat egingo du Drakos Custom motozaleen taldeak ere bere VII. urteurrena baita.

Eguraldi ona eginez gero, era desberdinetako motorrak bildu daitezke gure herrian eta horiek guztiak, Elizatze plazan egongo dira.

Honela, eguerdian hamaiketako egingo da Mendi Kafe Rocken. Osteen, motorrek ibilbidea egingo dute eta bazkaria izango dute Araeta jatetxean, Transistores 50 rock and roll taldeak eskainitako dantzaldi eta guzti.

Azkenik, ospakizunak ederki bukatzeko, arratsaldeko 18:00etatik taberna itxi arte, djak, opariak, ron dastatzea eta sorpresa ugari egongo dira Mendi Kafe Rock-era hurbiltzen direntzat. •



Era desberdinetako motorrak ikusi ahalko dira larunbatean.

Arg.: Mendi

# Stock eta Saldoen azokarako prest!

Asteburuan denboraldiz kanpoko arropa edo edozein modutako pagotxak erosteko aukera egongo da



Stock eta Saldoen azokako aurreko bi edizioek harrera ona izan dute herritarren artean, pagotx ugari aurki daitezke.

**A**terpea merkatari-elkar-  
teak eta Lasarte-Oriako  
Udalak elkarlanean  
prestatzen duten pagotxen  
merkatuak asteburu honetan,  
irailak 25 eta 26an, izango du  
leku Michelingo Kirol guneko  
pilotalekuan.

Udaleko Ingurumena,  
Kontsumo, Merkataritza eta  
Osasun Departamentuak  
eskainitako datuen arabera,  
hogeitabat merkatari erakutsi-  
ko dute bere gaia eta prezio  
onean, gainera, Stock eta Sal-  
doen III. azoka honetan.

Larunbatean, hilaren  
25ean, 10:00etatik 21:00etara

egongo da irekia, eta igande  
20:00etan itxiko da.

### Herriko denda gutxi

Tamalez, aurreko urteetako  
tendentzia hautsi da eta herri-  
ko merkatari gutxi dira aurten  
azokan parte hartuko dutena-  
k.

Honen ondorioz, ardu-  
dunek kanpoko herriko  
komertziori ireki behar izan  
dio atea. Beraz, Buruntalde-  
ko, zein Zarautz, Errenteria,  
Orio edo Zumarragako mer-  
katariek izango dute bere  
lekua azoka berezi honetan.

Gauzak honela, Aterpea

merkatari-elkar-  
teak herriko  
komertzioei parte hartzeko  
gonbita egiten die.

Horretarako, Aterpearekin  
jarri behar du kontaktuan, 637  
955 030 eta 687 845 623 tele-  
fono-zenbakien bitartez, edo  
itziarirurzun@hotmail.com  
helbidera posta elektronikoki bat  
bidaliz.

### Aurreko edizioek harrera ona

Aurreko urteetan herritar ugari  
bildu ditu Aterpeak eta Udalak  
antolatutako ekimen honek.  
Izan ere, nahiz eta krisi garaia  
izan, denboraldiz kanpoko  
arropa edo edozein modutako  
pagotxak aurkitzeko aukera  
dago azoka honetan.

Horregatik, Aterpea Elkar-  
teak eta Lasarte-Oriako Mer-  
kataritza Departamentuak  
herritar guztiak eta ingurueta-  
koak aukeren azoka handi  
honetara hurbiltzera gonbida-  
tzen ditu. •

*Aurreko urteetako tendentzia  
hautsi da eta herriko merkatari  
gutxi dira Stock eta Saldoen III.  
azokan parte hartuko dutenak*

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.  
Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publikitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Egunero

### Erakusketa

GOIZANE MENDIZABALEN argazkiak izango dira ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



## Ostirala, 24

### Jaialdia

HAURREN III. BIZIKLETA-MARTXA Mugikortasunaren Astearen barruan. Andatza plaza, 16:00etatik aurrera.



### Kontzertua

BUFFALO taldearen emanaldia, Jazz, fusion... Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan, EUSKARAZ.



## Familiarekin bizikletaz bidaiatzen

IPAR GAZIA, HEGO GOZOA proiektzioa eskainiko da Mugikortasunaren astearen barruan. Guraso eta bi haurrek osatutako familia zikloturista baten eskutik, bizikleta gainean bidaiatuz bizi duten esperientzia ezagutuko dugu. Hain zuzen ere, 2009an Europan barrena egindako bidaiak aurkeztuko dute. 2 bizikleta, 2 hilabete, 2.000 kilometro 2 haurrekin.

GAUR, HILAREN 20AN  
KULTURETXEAN  
19:00ETATIK AURRERA

## Larunbata, 25

### Azoka

STOCK ETA SALDOEN III. AZOKA antolatu du Aterpea merkatarri-elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin. Michelingo Udal Kirolgunea, 10:00etaik 20:00etara.




### Urteurrena

MENDI KAFE ROCK tabernaren VI. Urteurrena dela eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte: 11:00etan hamaiketakoak tabernan; 13:00etan motor eta autoen erakusketa S. Pedro elizaren ondoan; 14:30ean bazkaria eta ondoren Transistores 50 taldearen emanaldia. Iluntzean zozketak egingo dira eta opariak banatu. Mendi Kafe Rock, 11:00etatik aurrera.

## Larunbata, 2

### Jaialdia

LASARTE-ORIAKO VII. AKORDEOI JAIALDIA Zero Setteren eskutik. Jaialdian, Zero Sette orkestrarekin batera Paris-Moscou bikote frantziarra eta Accordion in Moder, Sabadellgo boskotea arituko dira. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean, BIETARA.



## Osteguna, 7

### Hitzaldia

HITZ EGIN DEZAGUN GALERAZ ETA DOLUAZ HAURREKIN ere hitzaldia eskainiko du Josune Martiarenak Udalaren Sanitateko Departamentuak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, GAZTELANIAZ



 **Liburutegiko ordutegia**  
Asteleheneretik ostiralera 10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era  
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara  
Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Telefonoa: 943 376181

 **Esazu irratiko programazioa**  
**Urriaren 15etik aurrera ostiralero programa!**  
FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era

## Oharrak

### Udako Txokotako argazkiak urrian

Udara honetan, uztaila eta abuztuaz, Ttakun Kultur Elkartek antolatutako txokotan egondako haurren argazkiak jasotzen dituzten CDak eskuragarri egongo dira urritik aurrera Amarnu Iudotekan (Ola kalea 1). Argazkien CDa jasotzeko ordutegia honakoa da 17:00etatik 20:00etara.

### Ikasturte hasiera Estudio del pintor akademian

Heldu, zein umeentzako margo klaseak hasi dira Estudio del Pintor akademian. Ez da matrikularik ordaindu behar eta ordutegi malguak dituzte. Interesatuak hurbildu Urko Plaza 1 zenbakira, Sasota edo deitu 943 367 731 telefono zenbakira.

### Margo eta marrazki eskola

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak gaztetxo eta helduentzat antolatzen dituen margo eta marrazki ikastaroetako izen-ematea irailaren 17,

20, 22, 24, 27 eta 29an egingo da, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, Iñigo de Loyola 12 behean duten egoitzan.

### Zitek ikasturteari hasiera eman dio

Zitek akademian kurso berria hasi da. Klase partikularrak jasotzea interatzen bazaizu, lekua daukazu. Informa zaitez 943 36 31 06 telefonoan edo egoitzan bertan asteleheneretik ostiralera 15:00- 19:00 tartean.

### Etexeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etexeratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

### Odola ateratzeko

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeko egingo dituzte Osasun Zentroan datorren asteleheneroan, hila-

ren 24an, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara.

Anima zaitetzte, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

### Elikadura, elikadura asaldurak, intolerantzia eta desordenei buruzko hitzaldia Usurbilen

DYAk elikadura, elikadura asaldurak, intolerantzia eta desordenei buruzko hitzaldia antolatu du.

Hitzaldia irailaren 21ean izango da, asteartea, 19:00etatik 21:00etara Usurbilgo Alperro Buru 3-Behea zenbakian dagoen "Gure Pakea" izeneko Zaharren Egoitzan.

Parte-hartze gisako formatuan gai hauek jorratu dira, eta azaltzen diren eduki teoretikoetatik gain, esku-hartzaileen testigantza eta bere aholkuei eta iritziei buruzko mahai-inguru bat antolatu da. Edozein argibideetarako 943 46 46 22 telefonora deitu edo mezu bat bidali helbide elektronikoa

honetara: irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com.

### Udaltzainen bulegoan dauden galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diruzorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, Shiroko markako motozikleta kaskoa, Samsung markako segapotoa, zilarrezko pultsera eta kami-seta beltz bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri Txintxarri aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

# Udalaren kirol eskaintza zabala

Herritarren artean kirola sustatzeko, larunbatetan kirol erakusketak egingo dira

**L**asarte-Oriako kirol zerbitzuak 2010-2011 ikasturterako Udal kirol eskaintza aurkeztu du. Adin guztietarako aukera zabala dago urriaren 1an hasi eta ekainera arte iraungo duten ikastaroen artean.

## Helduen eskaintza

Mantenimenduko gimnasia, egokitze fisikoa, banakako entrenamenduak, mantenimenduko igeriketa, aerobika, indoor txirrindularitza, pilates, igerian ikastea, body-pump, GAH (Gluteoak, abdominalak eta hankak) eta txirrindularitza, aquaerobika edo igeriketa gidatua ditugu helduentzako jarduerak.

Ikastaro hauek guztiak astean zehar egingo dira eta herritarren bermerako kirol bakoitzeko ordutegi anitzak egingo dira.

## Kirolen sustapena

Honetaz gain, herritarren



Herenegun Gah (gluteoak, abdominalak eta hankak) ikastaroa probatzeko aukera izan zuten kiroldegira hurbildutakoek.

arteon kirola sustatzeko, hurrengo larunbatetan hainbat kirolerako erakusketak egingo dira eta hauetan parte hartu daiteke.

Hurrengo larunbatean,

irailak 25, indoor master txirrindularitza, mantenimenduko gimnasia eta aquaerobika; urriaren 2an, aerobika, igeriketa gidatua, GAH eta body pump eta urriaren 9an, GAH

eta txirrindularitza, indoor txirrindularitza eta pilates maila aurreratuan.

## Haurren eskaintza

Gaztetxo eta haurrentzako jar-

duerei dagokienez, kirol ludoteka, txikientzat ur-ludoteka, 6-24 hilabete bitarteko haurtoentzako ur jarduerak, igerian ikastea eta 1999-2000 urteetan jaiotakoentzat kirol jardueren sustapena dira dauden aukerak.

## Izena emateko epea

Kirol jarduera desberdinetan izena emate epea ireki du Kirol Zerbitzuak.

Jarduera gehien talde kide kopurua mugatua da, beraz, plazak libre dauden bitartean izena emateko epea irekita egongo da. Bestalde, taldeak osatu diren edo ez jakiteko azken eguna irailak 24a izango da.

Jarduerari buruzko informazio gehiago eskuratu nahiez gero kirol zerbitzuak kiroldegian duen bulegora 10:00etatik 12:30etara edo 17:00etatik 19:00etara gerturatu edo 943 376 182 telefonora deitzea daukazu. •

# Euskara ikasteko aukera

Diru-laguntzak  
**%40 - %75**  
2010-2011

# ona eta merkeak

**Edozein lasarteoriarrentzat matrikularen %40 arteko diru-laguntza. Gurasoentzat, merkatariarentzat eta begiraleentzat %75 artekoa.**

## Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Beko kalea bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 17ra

## Muntteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aek.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 25era

## Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org

